

# DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## HEZKUNTZA SAILA

*2018ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA*

*OPE 2018. ENSEÑANZA SECUNDARIA Y FORMACIÓN PROFESIONAL*

*ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: MERKATARITZA PROZESUAK*

## A ATALA: Froga praktikoa

### Ariketa 1 (Puntu 1)

KASTRO enpresak hurrengo eskaintza egiten digu:

Produktua	Kantitatea	Prezioa
SD	300 u.	17 €
TY	190 u.	6 €
CP	1.300 u.	8 €
Deskontu komertziala: % 7a. Garraioa: 250 €. Bilgarria: 98 €		

K konstantearen kalkulua erabiliz, kalkula ezazu produktu bakoitzaren unitateko kostua.

Zein izango da SP produktu berriaren prezioa, 10 €/u. eskaintzen badigute?

### Ariketa 2 (2 Puntu)

MORGA S.A. enpresaren jarduera garbiketa industriala da. Merkatu honetan mantentzeko eta prezio lehiakorak izateko, produktu hauen hiru hileroko hornikuntza aurreikusten dira:

Produktua	Aleko kostua	Kopurua
Leungarria	4,00 €	500 u.
Zuritzaillea	14,10 €	90 u.
Detergentea	8,70 €	22 u.


INTASA S. A. hornitzaileak, behar dituen produktuak baldintza hauetan eskaintzen dizkio:

**Leungarria:** 12 unitate kaxa batean. Unitate (aleko) prezioa 3,70 euro.

- 15 kaxa erosten badira, bat oparitzen digute.
- 30 kaxa erosten badira, hiru kaxa oparitzen dizkigute.
- 40 kaxa erosten badira, lau kaxa oparitzen dizkigute.

**Zuritzaillea:** Unitate prezioa 14,10 euro.

- 15 unitate baino gehiago eskatzen badira, % 2ko deskontu komertziala.
- 30 unitate baino gehiago eskatzerakoan % 4ko deskontu komertziala.
- 50 unitate baino gehiago eskatuz gero, % 6ko deskontu komertziala.
- Bilgarriak 5 € kobratzen dira 15 unitateko.



**Detergentea:** 7,50 euro aleko prezioa.

- Eskaerak [10, 15]u., merkataritza deskontua % 1a.
- Eskaerak [16, 40]u., merkataritza deskontua % 1,5a.
- Eskaerak > 40 u., merkataritza deskontua, % 2a.

Detergentearen 500 € baino gutxiago eskatzen badira, 12 € kargatzen digute fakturaren barruan.

**KALKULATU:** Errentagarria al da MORGA enpresarentzat INTASA enpresari produkturen bat erostea? Eta guztiak?.

### **Ariketa 3 (Puntu 1)**

Biltegi bateko **A artikulua** urtean zehar gehien kontsumitzen diren ondasunak dira, beraz, finantzario inbertsio handia suposatzen dute (>%75) eta, biltegiko ondasun guztien arteko produktu gutxi dira %(10-20).

**C artikulua** berriz, kontsumo txikikoak dira %(5-10), baina biltegi barruan portzentai altua okupatzen dute %(50-60).


Eta azkenik, **B artikuluen** batez besteko kontsumoa %(10-15)-ekoa da eta biltegiaren %30eko balioa osatzen dute.

**LEKUONA** enpresak hurrengo datuak aurkezten ditu:

Erreferentzia	Batez besteko stock-a	Stock-aren balioa
a005	15	50.000
g007	120	2.000
f455	60	12.000
t415	150	1.500
o546	10	68.000

(1) ABC Metodoa erabiliz erreferentzien sailkapena egin.

(2) Zer kontrol mota ezarriko zenuke talde edo kategoria bakoitzarentzat?



#### **Ariketa 4 (1,5 Puntu)**

Nekazarien kooperatiba batek, egunero kristalezko 500 ontzi erabiltzen ditu olio botilatzeko. Ontzi bakoitzak 0,95 €-ko prezioa du eta biltegiatze edo mantentze kostuak 0,50 €/unitatekoak dira. Eskaera baten kostua 4 €-koa da. Hornitzaileak 10 eguneko epean entregatzen digu eskaera baina 4 egun atzeratu daiteke; hau da, entrega epea 14 egunekoa izan daiteke. Merkatuko interes tasa %5ekoa bada eta lan egunak 247 badira, **kalkulatu**:

- a) Eskaera kantitate egokia.
- b) Eskaera puntua.
- c) Urteko errotazioak.
- d) Stock guztiaren mantentze kostua.
- e) 1.600 unitate baino gehiago erosten badira, hornitzaileak prezioan %2ko deskontua egingo digu. Aukera hau egokia al da guretzat?

#### **Ariketa 5 (1,5 Puntu)**


Merkataritza enpresa batek hurrengo datuak aurkezten dizkigu. Kalkula ezazu Batez Besteko Heltze Aroa .

Izakinen batez bestekoa	125.000,00
Bezeroen batez bestekoa	35.000,00
Hornitzaileen batez besteko saldoa	38.000,00
Izakinak hasierako saldoa	150.000,00
Izakinak amaierako saldoa	100.000,00
Erosketak	300.000,00
Erosketen itzulketak	3.000,00
Salmentak	530.000,00

#### **Ariketa 6 (Puntu 1)**

*Turolense International Oil Company* enpresak oliba olio esportatzen du, Pittsburgh-en (Estatu Batuak) dagoen bezero bati. Salgaiak itsasoz garraiatuko dira, hurrengo baldintzetan:

- Salgaien balioa: 18.000 €
- Iragaitzako gastuak (bilketa, biltegiatzea, etab.): 62 €
- Aduana kudeaketa (Valentzia): 30 €
- Portuko gastuak (Valentzia): 80 €
- Garraioa (Valentzia- New York) : 720 €



- Asegurua: %0,9koa (Aseguru primaren kalkulua salgaien balioaren %110ean oinarrituta egiten da)
- Portuko gastuak (New York): 95 €
- Aduana kudeaketa (New York): 42 €
- Garraioa (New York - Pittsburgh): 246 €
- Aduanako tarifa (New York): 1.080 €

Informazio hau kontuan hartuta, kalkula ezazu fakturaren zenbatekoa hurrengo kasuetan:

- EXW Teruel
- FOB Valentzia
- CFR New York
- CIF New York
- DDP Pittsburgh

## **A ATALA: IRAKASGAITASUNA**

### **Ariketa 7 (2 Puntu)**

**Kanpo eta barneko Komunikazio Plana prestatu.**

Merkataritza eta Marketing familiaren goi mailako ziklo baten irakaslea zara. Ikasle talde batekin kanpo eta barne komunikazio plana egin behar duzu.

**Eskatutako planteamenduan hurrengo atalak azal itzazu:**

**Taldearen antolaketa gelan.**

**Kontuan hartzeko araudia.**

**Erabili beharreko software-a.**

**Egokien iruditzen zaizun metodologia.**

**Erabili beharreko baliabideak.**

**Ikasleek egindako lanaren ebaluazioa.**

